



olatukoop.eus

2024ko maiatza

<https://t.me/olatukoop>

[@Olatukoop](#)

info@olatukoop.eus

Finantzatzailea



Ekonomia
eta lurralde
eraldatzaileen
erriroma

OLATUKOOP

HERRI KOOP ERATIBAK

Herrigintza sozioekonomikorako
eta lurralde-eraldaketarako bide berri bat.

Egungo garaietarako
egokitzen den
herrigintzarako tresna
baliagarria da.

Herriko eragile
sozioekonomikoak eta
herritarrak biltzeko topagunea
eskaintzen du, interes
orokorreko erronkak elkarrekin
asetzeko.

Tokian tokiko kultura, hizkuntza,
pertsonek eta lurra zaindu eta
babesteko kontzientzia gunea
eskaintzen du.

Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE)
komunitate hurbil eta txikietatik
proiektu praktikoen bidez gauzatzeko
aukera ematen du.

Herriarekin eta herriarentzat proiektu
kooperatibo eta komunitarioak modu
integralean lantzeko aukera ematen du,
tokian tokiko estrategia sozioekonomiko
burujabea eta eraldatzailea sortzeko.

Udalarekin edo administrazio
publikoarekin batera herrian gobernantza
berri bat bideratzeko aukera eskaintzen
du. Herriaren ekimenetik abiatuta,
herriaren eta herritarren onura publikoa
erdiesteko helburua du.

HERRI ONURARAKO TRESNA

ZER DA?

**Herri Kooperatiba¹ herri/auzo/
eskualde/lurralde batek
beharrezko dituen edo desira
kolektibo bat diren proiektuak
sustatu eta zerbitzuak
eskaintzeko herri-egitura
sozioekonomiko bat da.**

Herritar antolatuen nagusi izanik,
era desberdinetan, ekonomia
sozialeko eragileak, herri-eragileak
eta erakunde publikoak helburu
komun batekin biltzen dira bertan,
helburu hori gauzatzeko, forma
kooperatiboa baliatuz.

**Herri kooperatiba EZ da forma juridiko
bat, forma ezberdinak har ditzake. Ez da
plataforma bat, baina plataformaren
ideiatik ere jasotzen du. Herri
kooperatiba EZ da zerbitzu publikoak
ordezkatzeko tresna bat, baina
administrazio publikoak eskaini ditzakeen
edo eskaini beharko lituzkeen hainbat
zerbitzu ematera bidera daiteke.**

**Auzo/herri/eskualdeko bateko
bizilagunak herriarentzat
estrategikoak diren proiektuak
garatzeko batzen dira.
Normalean, lehentasuneko
behar batetik abiatuta,
proiektu bat sortzeko
komunitatea sortzen da.**

**Baina zergatik saretu komunitatea
proiektu bakarrerako eta ez
anitzetarako?** Horrenbestez, herri
kooperatiben ideiak hainbat egitasmo
bateratzea du xede, herritar antolatuez
eta ESEko zein herriko hainbat eragilez
osaturako komunitate batez eratua.

Beste hitz batzuetan esanda, lehen
proiektu estrategikoaren bidez, Herri
Kooperatibara bazkidetza lortzea da
helburua. Jendea proiektu hori sortzeko
biltzen denean, bazkidetza proiektu
horri bakarrik lotuta egon beharrean,
proiektu nagusiari lotuko zaio. Horrela,


ZERTA RAKO?

Herri Kooperatibako bazkideak informazioa
jaso eta parte hartzeko aukera izango dute.
Eta aldi berean, sortuko diren hainbat
zerbitzuren erabiltzaile izan ahalko dira;
ez bakarrik batena.

Horri esker, egindako lana berrerabiltzeko
aukera ematen du, etorkizunean
komunitateak beharrezko dituen beste
proiektuak martxan jartzea erraztuz.
Horregatik, proiektu kolektibo, kooperatibo
edo komunitario berrien sorrera ere errazten
duela esan dezakegu; izan ere, hasiera
batean, proiektuek herri kooperatibaren
forma juridikoa erabil dezakete, eta hortik
abiatuta hazi edo garatu, proiektu autonomo
elkartu bihurtu arte.

¹ Julio, G. eta Udabe, L. *Herri Kooperatibak, hurbilpen bat*. Etzi.pm. 2021.
<https://etzi.pm/2021/01/herri-kooperatibak/> eta Irasuegi, B. *Herri Kooperatiben denbora*. Argia. 2021.
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2722/herri-kooperatiben-denbora>

NOLA EGIN? URRATSAK



- * Herri Kooperatiba baten izaera eta estatutuen inguruko lanketa espezifikoak egitea beharrezkoa izango da.
- Kooperatiba motaren aldetik, era askotakoak izan daitezke: kontsumo, zerbitzu, lan-elkartukoak, integralak, mistoak...; batzuk egokiagoak besteak baino. Halaber, garrantzitsuena ondo definituak egotea da.
- Irabazi asmorik gabekoa, gizarte ekimenekoa eta, ahalko balitz, interes publikokoa (herri onurakoa) izatea ere oso gomendagarria da.

Crak

HELDULEKU JURIDIKOAK EUSKAL HERRIAN²

HERRI KOOPERATIBAK, LANKIDETZA KOMUNITARIO-KOOPERATIBO-PUBLIKOAREN EGITURAKETARAKO TRESNA

Konplexutasun tekniko-juridikoen gainetik, zuzenbideak Euskal Herrian herri kooperatiben dinamika sustatzeko bidea irekitzen du.

Ezinbestekoak dira:

- Euskal herrigintzaren eta ESE mugimenduaren prestutasuna eta inizatiba.
- Administrazio publikoaren borondate politikoa.

EUSKAL HERRIKO HIRU ADMINISTRAZIOAK AINTZAT HARTUTA EGON DAITEZKEEN AUKERAK.

			EAE	NAFARROA	HEGOALDEA	IPAR EH
Sustatzaile nagusia	Administrazio publikoa bazkide	Forma juridikoa edo prozedura teknikoa	Udalerria, udalerrri-sarea, lurralde historikoa(k), mankomunitatea, partzuergoa	Udalerria, kontzejua, NFKko administrazioa, mankomunitatea, partzuergoa	Bi erkidegotan jardungo bada. Espainiako Kooperatiben legea aplikatuko da.	Udalerria, euskal hiri elkargoa.
Herritar antolatuak eta herri eragileak	EZ	Zerbitzu emakida kontratua - H.K. k zerbitzu publikoa ematen du.	X <i>Obra-kontratua edo emakida; hornikuntza/zerbitzu kontratua; kontratu mistoa.</i>	X <i>Obra-kontratua edo emakida; hornikuntza/zerbitzu kontratua; kontratu mistoa.</i>	X <i>Obra-kontratua edo emakida; hornikuntza/zerbitzu kontratua; kontratu mistoa.</i>	X <i>Merkatu publikoak, zerbitzuen emakida, zerbitzu publikoen eskuordetzea.</i>
		Lankidetzat-hitzarmena <i>Helburu komun baten alde elkarlanean aritzeko ituna da.</i>	X	X	X	Aurreko eta hurrengo aukerak izanda, arraroa da aukera hau hautatzea.
Administrazio publikoa	BAI	Kontsumo edo zerbitzu kooperatiba integrala	X	X	X	SCIC <i>Société coopertif d'interes colletif.</i> Forma juridiko propioa dago. Helburua, gizarte onurako eta interes kolektiboko zerbitzuak edo ondasunak ekoiztea da. Erakunde publikoek kapitalaren %50 izan dezakete.
		Zerbitzu publikoen kooperatiba	X			
		Kooperatiba mistoa > bazkide kapitalista		X		

² Etxezarreta, E. eta Bengoetxea, A. Herri Kooperatibak: helduleku teorikoak eta bideragarritasun juridikoa Euskal Herrian. KoopFabrika, 2022. <https://koopfabrika.eus/argitalpenak>

Euskal Herri mailako zerbait egin nahi bada, Kooperatiba Europarra sortuko da eta egoitza sozialak baldintzatuko du zer egin daitekeen.


ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK EUSKAL HERRIAN

Batik bat, despopulazio-egoera edota zerbitzu urritasuna jasaten duten eta landaguneetan kokatuta dauden herrietan abiatu dira oraingoz esperientziak.

Ipar Euskal Herrian SCIC forma juridikoa erabiltzen da eta jada badaude gisa honetako proiektuak martxan, nahiz eta herri-kooperatiba gisa kontzeptualizatu ez diren.


HERRI BIZIGUNE Zizurkil - Gipuzkoa

- FORMA-JURIDIKOA**
Kontsumo kooperatiba, irabazi asmorik gabekoa.
- SUSTATZAILE NAGUSIA(K)**
Herri Bizigune elkarte (Herritar antolatuak)
- PROIEKTU TRAKTOREA(K)**
Elikadura-sarea + haurren basoa



BAKAIKUARROK Bakaiku - Nafarroa

- FORMA-JURIDIKOA**
Kontsumitzaile, erabiltzaile eta zerbitzuen kooperatiba integrala.
- SUSTATZAILE NAGUSIA(K)**
Bakaikuko herritarrek eta Udalaren babesa hasieratik
- PROIEKTU TRAKTOREA(K)**
Elikagai-denda



AGINAGA BIZIBERRITZEN Aginaga - Gipuzkoa

- FORMA-JURIDIKOA**
Kontsumo-kooperatiba integrala, irabazi asmorik gabekoa.
- SUSTATZAILE NAGUSIA(K)**
Aginagako herritarrek
- PROIEKTU TRAKTOREA(K)**
Elikagai denda eta telekomunikazio libreen zerbitzua (oraindik martxan jartzeke).

